

ELAk, Gipuzkoako Foru Aldundiak Menpekotasun Legea ez duela betetzen salatzen du

BALORAZIOAK PRIBATIZTZEAZ GAIN, MATIA TALDEKO ENPRESA BATI EGINIKO ADJUDIKAZIOAN IRREGULARTASUNAK IZAN DIRA

¿Zergatik dio hau ELAk? Legeak, balorazio prozesua erakunde publikoetako langileek egin behar dutela ezartzen duen bitartean, guztiz kontrakoa gertatu delako.

Adjudikazioa ez da batere garbia izan eta MATIA Fundazioa taldeko enpresa baten alde egin da. MATIA Fundazioa da, hain zuzen, GFAk ongizarte zerbitzuetarako emandako subentzioen jasotzaile nagusietako bat.

Menpekotasun legeak, menpekotasun maila ezberdinak ezartzen ditu, eta pertsonek, hauen arabera laguntza mota bat edo beste izango dute.

Legea indarrean sartu baino lehen, GFAk oso balozario zehatzak egiten zituen. Lan talde kualifikatu batek betetzen zuen lan hau (sendagileak, psikologoak, zereginetako terapeutak, fisioterapeutak, etab).

Legea indarrean sartu ondoren, ordea, GFAk Matia Fundazioko INGEMA enpresari adjudikatzen dio balorazioak egiteko lana, legeak kontrakoa ezarri arren, hau da, balorazioak Administrazio Publikoko langileak egin behar dutela.

Legeak, bere 28. artikuluan, honakoa dio: ***“los servicios de valoración de la situación de dependencia, la prescripción de servicios y prestaciones y la gestión de las prestaciones económicas previstas en la presente Ley, se efectuarán directamente por las Administraciones Públicas, no pudiendo ser objeto de delegación, contratación o concierto con entidades privadas”***

Adjudikazio prozesuak irregulartasunak izan dituela salatzen du ELAk. INGEMA Fundazioazri 2007/07/7an GAOan adjudikazioa egiterako, enpresak hilabeteak zeramatzan balorazioak egiten.

ELAk egindako kalkuluen arabera, 30-40 lanpostu sortuko lirateke GFAk berak egingo balituzte balorazioak, legeak dioen moduan.

Kontu guzti hauegatik, balorazioak ez dituzte kalitatezko neurriak betetzen.

- Azkar egiten direlako. Nahiz eta enpresak 65 minutu behar direla ezarri, pertsona bakoitzeko 15 bat minutu erabiltzen dira. Askotan, egoitzetako langileei menpekotasuna duten pertsonen berri galdetuz egiten da balorazioa.
- Balorazioa ez du lantalde kualifikatu batek egiten; enpresa azpikontratitzen da eta honek, teknikari bat bidaltzen du, inkesta egin dezan. Ondoren, Foru Aldundiak sinatu besterik ez du egiten inkesta hau. Foru Aldundiko teknikoak ez dute parte

hartzen ez prozesu guztian ez eta bertan azaldutako datuen fidagarritasuna aztertzeko garaian.

- Azpikontrataturako enpresaren egoera ere ez da erraza. Foru Aldundiak presioa egin dezake balorazioak onuragarriagoak izan daitezen. Eta azken finean haxe da gertatzen ari dena.

¿ZER DA INGEMA?

INGEMA, MATIA Institutu Gerontologikoa bezala ezagutzen duguna, Matia taldeko enpresetako bat da. Harrigarria dirudien arren, INGEMAk dituen diru sarreraren zati handi bat erakunde publikoetatik dator. Espainiar Estatuko Gobernuak EAEari gai hauetarako 8.702.000€ eman zizkion eta horrela banatu ziren: 2.264.260,20€ balorazioetako eta 6.437.739,80€ zahar egoitzetan berritze lanak egiteko. Hauetatik, 2.700.000€ Gipuzkoara iristen dira eta diru guzti hauen zati handi bat Fundazio pribatuetara bideratzen da. Honez gain, Euskal Administrazio Publikoek beste 16.921.875,20 € jartzen dituzte proiektu hauek finantzatzeko.

Ikusten dugunez Administrazioek Menpekotasuna ez dute bere gain hartzen baina diru publiko itzela Fundazio Pribatuetara bideratzen dute. Gipuzkoan, 2007. urtean 11.000.000€ joan ziren enpresa pribatuetara (subentzioak eta eraberritze lanak). Hauetatik 1.033.678 € INGEMARA doaz eta beste 1.133.500€ MATIA Fundazioko beste zentru batera. Bataz beste, eta guk ditugun datuen arabera, menpekotasunari dagokionaren %20 doakio.

Hau guztia nahikoa ez balitz, zahar egoitzako erabiltzaile bakoitzak 1800 € hileko ordaintzen ditu eta langileei Gipuzkoako hitzarmenaren arabera ordaintzen zaiela kontuan hartuz, enpresen negozioa itzela da.

Zumarragako egoitza berriaren adjudikzioa GEROZERLAN enpresari eman zaiola gogoratu nahi dugu. Enpresa hau MATIA Fundazioa eta MOYUAK osatzen dute. GFAn zegoenean adjudikazioa gauzatu zuenak, gaur egun, Gerozerlaneko zuzendaritzako partaide bat da. Sinesgaitza da Faustino Orbegozoko langileen lan baldintzak bermatu ezin dituztela diotenean.

Behin eta berriro, ELAk Gizarte Politikarako Sailaren jarrera salatzen du, non enpresa pribatuak irabazten ateratzen diren eta gizarteari, oridea, eman beharreko zerbitzuak geroz eta okerrak direnean.